

## 1. Soziolinguistikaren eta hizkuntza politika eta plangintzaren oinarriak 7. jarduera: hizkuntza aniztasunaz

### Irakurgaia:

- Manterola & Berasategi (2011), “1.3. ‘Hizkuntzazidua’ eta hizkuntzen desagertzea” eta “1.4. Hizkuntza aniztasunaren alde” atalak. [Eskuragarri Egelan].

1. Hainbat autorek (Tove Skutnab-Kangas, Belen Uranga, eta abarrek) “hizkuntzazidua / hizkuntzen erailketa” kontzeptua darabilte, “hizkuntzen desagertzea”-ren ordez. Zer da “hizkuntzazidua”? Ze ñabardura dauka, “hizkuntzen desagertzea”-rekin konparatuta?

2. Egungo testuinguruan, hizkuntza aniztasuna sustatzeko berme nagusia hizkuntza gutxituen iraupena da. Ados zaude baieztapenarekin? Zergatik?

3. Taldeka jarrita, eztabaidatu baieztapen hauek. Aurre egiteko argudioak idatzi eta jendaurrean azaltzeko prestatu. Derrigorrez egin behar zaie aipamena Manterola eta Berasategiren kapituluaren agertzen diren ideiei.

a) Hizkuntzak desagertzen badira, bizitza modernorako balio ez duten seinale.

b) Interneten hizkuntza bat ez bada erabiltzen, ez du balio gaur egungo garaietarako.

c) Politikatik atera behar dira hizkuntza auziak. Hobe da politikarik ez egitea hizkuntzekin.

d) Oso garestia da hizkuntza aniztasuna mantentzea. Aldiz, hizkuntza gutxiago hitz egingo balira, diru asko aurreztuko litzateke irakasleen prestakuntzan, ikasmaterialen edizioan eta abar.

e) Norbere hizkuntzak iraun dezan saiatzea, aukera bat besterik ez da. Beste aukera bat da, balio berekoa gainera, norbere hizkuntzaren ordez, beste bat hitz egiten hastea familian, lagunekin...

f) Ondo dago hizkuntza aniztasunaren alde egitea, baina beti ezin da. Adibidez, familia etorkinek aukeratu egin behar izaten dute: etxeko hizkuntza sustatu seme-alabengan ala harrera gizartekoa sustatu. Eta egiten duten aukera errespetatu egin behar da.

g) Euskararen biziberritze prozesuak Euskal Herri elebakarra izan behar du helburu, besteak beste, munduan zehar ere hori delako ohikoena: biztanle elebakarrez osatutako nazio eta estatu homogeneoak.

h) Munduan zehar ekonomikoki eta politikoki eraginkorrenak eta indartsuenak diren estatuak elebakarrak dira ofizialki. Estatu eleaniztuna kudeatzea, berriz, zaila da eta ez da batere eraginkorra.